

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Landa ondasun higiezinaren gaineko zerga eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga kobratzea

Landa ondasun higiezinaren gaineko zergaren eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren kontribuzio eroldak egin eta legezko denboran jendaurrean egon direlarik, aztertze eta, nahi izanez gero, erreklamazioak aurkezteko, eta inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onartuta geratu dira.

Borondatezko bilketaren epea hilabetekoa da, 2016ko azaroaren 15etik aurrera.

Ordainagiriak helbideratuta ez dituzten zergadunek udal bulegoetara joan beharko dute haiek jasotzera, eta Vital kutxara, ordaintzera.

Borondatezko aldia amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko betearazte bidean sartuko dira automatikoki, berandutze interesekin eta, hala badagokio, sortzen diren kostuekin.

Lapuebla de Labarca, 2016ko urriaren 24a

Alkatea

MAIDER MURILLOTREVIÑO